

2011KO OTSAILAK 24

24 DE FEBRERO DE 2011

ORGANO: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO OTSAILAK 24

DIA: 24 DE FEBRERO DE 2.011

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA  
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA  
Lide AMILIBIA BERGARETXE  
Manuel ZUBIA ARTABE  
Pilar ETXABE IRIONDO  
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA  
Nerea EPELDE AZKUE  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ  
Aitor LEIZA ALBERDI

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Unai MANZISIDOR ANDONEGI  
Paloma HEREDERO NEGREDO  
Cristina FORCADA UNANUE

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE  
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por  
ematen du. el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Esan bezala, gaur ohiko plenoa,  
otsailak 24, eguneko aztergaian, aurreko puntua:

**AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO  
BALDIN BADA: (2011.02.10)**

Bateren batek zerbait esateko, Joseba,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA):  
Arratsalde on guztioi,  
Bi gauza dauzkat esateko, bi hitz hobeto esan da, gauza gehiago ere bai,  
baina nola hauek zentzua aldatzen dioten esaldiari esan egingo ditut,  
27. orrian bigarren lerroan esaten duenean:  
“udaletxeak espediente batzuk edukiko dituela” exzedente batzuk da, edo  
soberakinak, espediente hitza Ez  
Eta, 33. orrian jartzen duenean “ibilgailu beharrak izango du salbuespena”  
ibilgailu bakarrak izango du salbuespena, ez beharrak.

Zer edo zer gehiago, bateren batek, Inork Ez.

Bigarren puntua: PROPOSAMENAK:  
Bigarren puntutik aurrena:

**INKOMUNIKAZIORIK EZ!**  
**TORTURARIK EZ! UDAL TALDE MISTOAK AURKEZTURIKOA,**  
Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, Kaixo  
arratsalde on,  
Mozioa irakuriko dut, jarraian:

MOZIOA  
INKOMUNIKAZIORIK  
EZ!TORTURARIK EZ!

Euskal Herriak pairatzen duen errepresio oldarraldiaren baitan, tortura errealitate gordina da. Azken 30 urteotan, kasik 10.000 euskal herritarrek torturak edo tratu txarrak salatu ditu polizia ezberdinen esku egon ondoren eta hainbat dira torturapean hildako lagunak.

laz 64 izan ziren torturak salatu zituzten herritarrek eta urtarrilaren lehen egunetan jadanik zazpi dira esku artean ditugun tratu txarren salaketak.

Torturaren praktika ezkutatu ezinezko errealitatea da gure herrian. Estrasburgok Espainiako Estatua zigortu du tortura salaketa bat ikertu ez izanagatik. Abenduan, Gipuzkoako probintzi auzitegiak, Mattin Sarasola eta Igor Portu torturatzea egotzita Iau Guardia Zibil zigortuak izan dira.

Hau horrela izanik ere, inkomunikazioa erabiltzen jarraitzen du Espainiako Gobernuak tortura eta tratu txarrei bide emanez. Torturaren eragina ez da komisarian amaitzen. Torturapean egindako deklarazioak froga bezala

MOCIÓN  
¡NO A LA INCOMUNICACIÓN!  
¡NO A LA TORTURA!

En el contexto de la ofensiva de represión que sufre Euskal Herria, la tortura es una cruda realidad. En los últimos 30 años, casi 10.000 ciudadanos de Euskal Herria han denunciado malos tratos después de haber estado en manos de distintos cuerpos policiales, y son varios los que han fallecido a causa de las torturas.

El año pasado fueron 64 los ciudadanos que denunciaron haber padecido tortura, y ahora durante los primeros días de enero, son ya 7 los casos de malos tratos que tenemos entre manos.

La práctica de la tortura en nuestro pueblo es una realidad que no se puede ocultar. Estrasburgo ha condenado al Estado español por no investigar una denuncia de tortura. En diciembre, la Audiencia Provincial de Gipuzkoa ha condenado a cuatro guardias civiles por haber torturado a Mattin Sarasola y a Igor Portu.

A pesar de todo esto, el Gobierno español sigue aplicando la incomunicación dando vía libre a la tortura y a los malos tratos. Las consecuencias de la tortura no acaban en la comisaría. Las declaraciones tomadas bajo tortura se utilizan como prueba en los

erabiltzen dira auzitegietan, eta froga hauek herritarrak zigortzeko erabiltzen dira.

Aro berri bat irekitzen ari da Euskal Herrian, baina alde batetik etorri diren distentsio keinuek errepresioa izan dute ordainetan. Espainiako Gobernuak torturarik latzenak jarri ditu mahai gainean, gure herriaren benetako konponbidea eta bakea erdiesteko emaniko urratsei muzin eginez. Giza eskubide guztien bermeaz hitz egiten ari garen honetan, torturarekin amaitzeak garrantzia berezia hartzen du.

Egoera honen aurrean, udal honek honakoa adierazten du:

-Tortura kasu guztiekin amaitzeko exijentzia egiten diegu, ardura zuzenak dituzten erakunde, alderdi politiko eta polizi gorputzei.

-Torturaren amaiera inkomunikazioaren amaierarekin lotzen dugu. Beraz, inkomunikazioarekin amaitzeko eskaera argia egiten dugu, besteak beste, NBE-ko hainbat errelatorek egindako gomendioei jarraiki.

- Torturaren errekonozimendua beharrezkoa ikusten dugu. Bide horretan, torturatuak izan diren

tribunales y dichas pruebas son utilizadas para aplicar condenas a los ciudadanos.

En Euskal Herria está comenzando una nueva era, pero los gestos de distensión de una de las partes han tenido como respuesta la represión. El Gobierno español ha puesto sobre la mesa las torturas más crueles, dando la espalda a los pasos dados en pos de la resolución del conflicto y la consecución de la paz verdadera. En esta época en la que estamos hablando de garantizar todos los derechos humanos, acabar con la tortura resulta especialmente relevante.

Ante tal situación este Ayuntamiento manifiesta lo siguiente:

- Exigimos a los organismos, partidos políticos y cuerpos policiales que tengan responsabilidades directas en el tema, que se ponga fin a todo tipo de torturas.

- La erradicación de la tortura está a nuestro entender, directamente relacionada con el fin de la incomunicación. De modo, que hacemos una clara petición para que se ponga fin a la incomunicación, siguiendo las recomendaciones, que entre otros, han hecho los relatores de la ONU.

- Vemos necesario reconocer la existencia de la tortura. En ese sentido adoptamos el compromiso

herritarrei beharrezko laguntza eta asistentzia emateko konpromisoa hartzen dugu.

- Norabide horretan, torturaren aurka burutze diren ekimenei gure babesa emateko konpromisoa ere hartzen dugu (hau otsailaren 13an egin zen kontzentrazioaren aurretik jorrazteko pasatu ziguten, baina ez zen posible izan, beraz puntu hau, ez da aktuala, baina bueno hemendik aurrera torturaren aurka burutzen diren ekimenetan ba... gure babesa eta elkartasuna adieraziko dugu)

- Azkenik, adierazpen honen berri ematea herritarrei, hedabideei, EAE-ko lehendakariari eta Espainiako gobernuari helaraztea.

de ofrecer apoyo y asistencia a los ciudadanos que han sido torturados.

- Adoptamos en compromiso de respaldar todas las iniciativas que se lleven a cabo en contra de la tortura,

- Por último, haremos llegar esta declaración a los ciudadanos, a los medios de comunicación, al lehendakari de la CAV y al presidente del Gobierno Español

Beraz, hau da aurkezten dugun mozioa, Udal Batza honek eztabaida eta onartu dezan,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Oso ondo, bateren batek, zerbait esateko?

M. Eugenia, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):

Arratsalde on guztioi,

Egia da, 10.000 kasutik, beno... ez dakit..., egia da, behintzat datu hori erabiltzen da, ez? tortura salaketak izan direla urteetan. Egia da, bai, orain dela gutxi ezagutu dugula Mattin Sarasola eta Igor Portu, nola da... Madrileko aeropuertoa, bueno... Barajaseko T4-aren kontra, egin zutenen kontra, nabarmen, egindako tortura izan zela; tortura izan zela esaten duen sententzia, nahiz eta Rubalcaba Ministroak denon begibistakoa zena ukatzen zuen... beno, denok ezagutzen diogun abilezia erabiliaz, komunikabideen aurrean. Beraz, egia da kasu horretan, eta kasu horretan egia izanik beste hainbatetan torturak egon, egon direla.

Egia da baita, inkomunikazioa dela tortura eta tratu txarren iturburua eta ONUko relatoreak behin eta berriz salatu duen kontu bat dela eta

Legebiltzarrean behin eta berriz salatu eta gaitzetsi dena ere bai, hala ere indarrean jarraitzen duena. Eta beraz, guzti hori horrela izanda, ba... torturaren salaketarekin ados gaudela esan behar. Ezin izan genuen etorri atzo.. -usten dut izan zela- bozeraemaileen batzordera eta beraz, ezin hor azaldu zer genituen esateko, baina nik proposamen batzuk egingo nituzke oraintxe, bote-prontoan, eta onartuko bazenituzkete ba... gure aldeko botua izango litzake, ez?

Ia... mozioa den horretara mugatuz, aurrengo puntuan dio:

“ Tortura kasu guztiekin amaitzeko exijentzia egiten diegu, ardura zuzenak dituzten erakunde, alderdi politiko eta polizi gorputzei.”

Aber... niri esaldia dagoen bezala..., guri iruditzen zaiguna da besteak beste badaukala arrisku galanta eta dela Ezker Abertzalearen lepotik zintzilikatu izan den salaketaren antzeko zerbait beste alderdi batzuren lepotik ere zintzilikatzeko arriskua: Ezker Abertzalea ilegalizatua izan da, ilegalizazio hortarako aitzakia bezala denok dakigunez, erabili izan dutena da Ezker Abertzalea eta ETA gauza bat direla edo ETA-ren egindakoak Ezker Abertzalearen ardura zuzena izan direla. Erabat logika juridikoaren kontra dihoana bere hortan, eta seguruenik logika beraren kontra ere bai. Baina hemen egiten duzuen baieztapen honekin ba... antzeko zerbait egiten duzue alderdi politikoak eta en fin... polizia gorputzak ba... bueno badakigu, poliziak polizi direla, baina gure ustetan esaldi hori erabat zabala eta “kutsakorra” izan daiteke, beraz, proposatuko genukeena da:

“Tortura kasu guztietan amaitzeko exijentzia egiten diegu, torturen ardura zuzenak dituzten guztiei”

Bigarrenko puntuan dio mozioak:

“ Torturaren amaiera inkomunikazioaren amaierarekin lotzen dugu. Beraz, inkomunikazioarekin amaitzeko eskaera argia egiten dugu, besteak beste, NBE-ko hainbat errelatorek egindako gomendioei jarraiki” horrekin erabat ados.

Hirugarrenkoan:

“Torturaren errekonozimendua beharrezkoa ikusten dugu”. Horretaraino ados.

“Bide horretan, torturatuak izan diren herritarrei beharrezko laguntza eta asistentzia emateko konpromisoa hartzen dugu”. Bueno... hor eh... gure ustetan torturatuak izanda edo beste edozein egoera larri eta tamalgarrietan dauden herritarrei laguntza emateko bide, ba... bide hori bideratu daitekeen neurrian udalak dauzkan Gizarte Politiketatik ondo; hortik haratago..., usten dugu erabat mugarik gabeko edo konkreziorik gabeko hobeto esanda, konkreziorik gabeko konzeptu bat erabiltzen dela eta Udal honen eskumenetik edozein..., Udalen eskumenetik at geratzen den planteamentu bat dela, proposamen bat dela, eta

Laugarrenko puntuan:

“Norabide hortan, torturaren aurka burutzen diren ekimenei gure babes  
emateko konpromisoa ere hartzen dugu” Bale! Eta bueno adierazpen berri  
ematea ere bale,  
Beraz, aipatu ditudan horiek onartuko balira gure aldeko botua izango luke,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Besteren batek, zerbait esateko,  
Emiliano, Ezerrez  
Aitor, Ezerrez,  
Pili

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bai,  
Gutziz, M. Eugeniak esan duenarik aldaketa horiek egin ezkerro, ba... nik  
ere onartuko nukeela.  
Aurrenengo puntutik alderdi politiko hori kenduta, o sea, alderdi politikoak  
ez sartuta eta gero, baita ere jakin nahi nuke inork esplikatzerik baldin  
badauka “herritarrei beharrezko laguntza eta asistentzia hori, zertan datzan”  
den ekonomikoki edo den pertsonalki edo den... nola den.  
Gainontzean ba... ondo

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno...  
Lehendabizi, komentatu kurioa egiten zaigula ikustea, nola ba... beti  
bezala gure arteko edo batzuren inguruan aurkezten diren mozioei aldeko  
bozkak aurkitzea duen zailtasuna, aldiz, Madrilen egiten diren adierazpen  
politikoek zer nolako babes jasotzen duten ikusita, ez?  
Madrilen, oker ez baldin banago Nafarroa Bai (NaBai)k eta EAJ-PNV-k eta  
beste Alderdi Abertzale batzuk –dieron todo su apoyo a las fuerzas de  
seguridad del Estado, tanto a la Guardia Civil como a la Policía Nacional  
en todas las actividades que desarrollan en contra de la lucha del  
Terrorismo- hor esaldi hori, ez dakit, oso zabala den?, matizalea den? edo  
ez? baina behintzat matiz gutxi ikusi genuen eta hori onartu, onartu zuen  
EAJ-PNV-k Madrilen, orain berriz, mozio hau onartzeko inkomodidade  
batzuk ikusten ditugu eta guri iruditzen zaigu inkomodidade horiek ba...  
benetako arduradunak zeintzuk diren ba... adieraztea inkomodo egiten dela,  
egiten zaiela iruditzen zaigu, torturak egon baldin badaude da baldintzak  
ematen direlako, torturak aurrera eramateko inpugnitate bat ahalbidetzen  
delako eta komisaldegietan ba... bost eguneko inkomunikazio hori ba...  
politikoki norbaitek babesten duelako eta norbaitek hartu ditu erabaki

politikoak ba... baldintza horiek eman ahal daitezten, beraz, politikoki hartu beharko dira erabakiak baldintza horiek desagertarazteko eta alderdi politiko batzuk babesten dute gaur egun dagoen legedia eta gaur egun ba... kuarteletan ematen den egoera hori jarraitu ahal izan dadin ba... batzuren esku dago hori aldatzea eta ez dute aldatzen, beraz, guri iruditzen zaigu ba... ardura zuzenak dituztela dituztenek eta argi dagoela zeintzuk diren eta generikoki esan beharrean ba... alderdi politiko eta polizi guztiei edo gorputzei ba... ardurak zuzenak dituztenei ba... eskatzea torturarekin amaitzeko ez dagoela lekuz kanpo baizik eta beharrezkoa dela, gure ustetan mozioari ba... kontenidoa kentzen zaio hori kenduta, eta ez zaigu iruditzen lekuz kanpo dagoenik, hemen denok baitdakigu zeintzuk diren torturaren arduradun eta horiei zuzentzen diegu mozio hau, hartu ditzaten hartu behar dituen neurriak –aunque sean insuficientes y poco a poco- baina neurriak aber... hartzen dituzten beroiek ere eta aber... halako batean ba... torturaren lakrarekin bukatzen joaten garen Herri hontan.

Beraz, aurkeztu diguten bezala bozkatzeko borondatea daukagu, zeren, hala aurkeztu digute eta hala onartu behar dela iruditzen zaigu, atzo bozeraemaileen batzordera etortzeko aukerarik ez zen egon, ez zen debatitu baina bueno... aldaketak plenoan bertan ere proposatzea nik usten dut ez dela ohitura onena, bozeraemaileen batzordean ez egonagatik, nik usten dut, badaudela beste aukera batzuk ere ba... plenoan arratsaldeko zazpirak eta laurdenetan ba... horrelako gaietaz eztabaidatzen hasi aurretik lehenagotik ere hitz egin daiteke, baina hala ere ez zaigu iruditzen aldaketak ezer onik ekartzen dionik baizik eta kontenidoa kentzen dio mozioari eta guk usten dugu kontenido guztiarekin mantendu behar dela, eskerririk asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ez galdetu egiten dut, nahi duzu hitz egin? Venga ba...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Nik usten dut, Andonik aipatu dituenetik okerrena dela ez daukala inolako adostasun batetara iristeko asmorik, iruditzen zaigu bere hortan eta dagoen bezala dela bueno... zuk esan duzu “zeurontzat era bakarra”; usten dugu gure proposamenak ez daukatela hainbestearainoko eztabaidarako biderik eta guztiz arrazoizkoak direla,

Aurrenengo puntua mantentze horrekin, ez dakit, konturatzen zareten...; eta akaso zuek argi ikusten duzuen gauza bat izanik, esango nuke Alderdi Popularrak zuen kontra jarduten duenean, zuek bezain besteko argitasunez jarduten duela eta... nahiko pareko; eta nik, horri buelta bat emango nioke, Andoni, ...egiten zaituela esaldi horrek...



Eta norberarentzat exijitzen dena bidezkoa izanik ba... besteei ere errekonozitu behar izaten zaie..., Hortaz aparte, esan dudan bezala gure asmoa zen, eta gure ustez -eta apaltasun osoz- arrazoizko asmoa, (ez da ezta erdi bide bat ere!), o sea, konzeptu guztiak ontzat ematen ditugu aipatutako salbuespen horiek egin ezker, baina bueno... mantentzen baldin baduzute zuen postura inolako malgutasunik gabe eta elkarrizketarako aukerarik gabe ba... listo, jakinda, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Besteren batek, zer edo zer esateko, Pili,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bai, nik galdetu dut, asistentzia hori, laguntza eta asistentzia hori zertan datzan? Eta ez didazu erantzun Andoni,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Nik, nire postura adierazteko, ez dudalako lehenago adierazi eta M. Eugeniak zionaren ildotik, bai... aitatu nahiko nuke eta aurrengo puntuari dagokionez, nik behintzat intepretazio hori ez dudala ateratzen, M. Eugeniak ateratzen duen interpretazio hori, tortura kasu guztiekin amaitzeko exigentzia egiten dugu, ardura dituztenei eta ardura dituzte erakunde, alderdi politiko edo polizi gorputzek, dituztenak dituztela, horrekin ez dugu esan nahi alderdi politiko guztiak erantzunkizunik dutenik eta polizi guztiak erantzunkizuna dutenik! baina torturak izan dira eta baten batzuk eta norbaitzuk izan dute erantzunkizunik eta azken finean denok dakigu kanpotik etorritako ba... martziano batzuk ez direla izan ez?

Beraz, zentzu hortan eta generikoki egindako esaldi bat denez, niri iruditzen zait, inolako arazorik ez litzatekeela egongo, niri dagokionez behintzat, hau onartzeko?

Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, dirudienez, adostasunetarako iristeko inongo borondaterik ez daukagu eta ez daukagu inongo malgutasunik, ez dakit, moziaren berri eduki zenuten asteartean, akaso, atzo bozeraemaileen batzordea egon zen eta ezin izan zintaten etorri, baina, zer da adostasunetara iristea?

Azkenengo orduan EAJ-ko kideek egiten dituzten ekarpen guztiak onartu behar izatea?

Iruditzen zait adostasunak bilatu nahi baldin badira, benetan lehenagotik lantzen hasi behar direla eta ez orain hemen ba... jarri zeintzuk diren zuen baldintzak, guk ondoren adostasunak ahalbidetzeko edo ez, adostasunak beste erabatetara lantzen dira eta ez azkenengo momentuan baldintzak jarriaz eta baldintza horiek tragatu edo onartzen ez baldin badira, besteak malgutasunik ez dutela esatearekin ez dut usten nik ba... zuek guk baino adostasunerako ispiritu gehiago daukazutenik edo gu zuek baino gutxiago, adostasunak lehenago landu izan ezkerro, akaso bilatzeko aukera zegoen baina hemen azkenengo orduan ba... horrelako baldintza ba... ez dakit, xumeak izanagatik garrantzitsuak edo bakoitzak nahi duen garrantzia emango dio baina beste forma batzuk ere posibleak ziren eta lehenagotik ere guzti hauetaz hitz egitea ere bazegoen, baina Iñakik esan duen bezala gure ustetan ba... ez zaio sobratzen ezer mozio honi, iruditzen zaigu esan beharrekoak esaten direla eta horrelaxe aurkeztu dugu, horrelaxe eduki duzute aurkeztu zaizuenetik eta horrelaxe bozkatuko dugu beti egin izan ohi dugun bezala, eta bueno... zer den laguntza eta asistentzia eskaintzea ba... bueno erderaz esaten da – al buen entendedor pocas palabras bastan-baina batzuetan ematen du alferrikako esplikazioak ere eskatzen direla, zeren, esaten dudana esaten dudala ez dut uste ondo ulertuko zaidanik, laguntza eta babesa eskaintzea, bueno.... udalak dituen baliabideekin eta dituen eskumenekin eta baliabide humano eta teknikoekin eskatzen zaion laguntzan momentuan momentuan aztertu eta ahal dugun heinen laguntzea eta babesa eskaintzea izango da, noski, besterik gabe

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno... bozkatzera pasako gara, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Baina, gure bozkaren zentzua adierazi aurretik, esango nukeena da azpimarratuko nukeela Andonik esan duen bezala eta aitzakiak jarri ditu denbora faltak eta aurretiazko proposamenak egitea geneukala eta ez dakit zer... baina bukatu du esaten azken finean proposamenarekin bat egiten duela, alegia, ez da denboraren arazo bat, Gure abstentzioa, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Abstentzioa; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontrako botua, ARALAR?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Aldeko botua, bakarrik Andoniri esan nahi diot, berak, klaro publiko oso... bere publikoa dauka hemen aurrean eta bueno... bere esplikazio latzak izaten dira eta publikoa daukanean batez ere, baina esan nahi diot, behin eta berriro berak ez duela sekula aldatu nahi “coma” bat bere mozioetatik eta sekula ez duela kontsultatzen atzo adibidez, niri ez zidazuen ezer galdetu, nik ez dut eduki aukerarik “coma” bat aldatzeko hemen mozio hontan eta igual deitu baldin bazidazuen etorriko nintzan aldatzea zeoze...

Esan nahi dut horrekin, ni torturaren kontra nagoelako eta egon naizelako beti bizitza osoan botako dut alde, baina ez pentsatu redakzio honekin konforme nagoenik,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Pilin aldeko botua, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Aldeko bozka,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EAK ere alde

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu ( 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTEA; 1 EA)

Aurkako botuak: 1 botu (PSE-PSOE)

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos (3 TALDE MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTE; 1 EA)

Votos en contra: 1 voto ( PSE-PSOE)

Abstentzioak: 3 botu (EAJ-PNV)

Abstenciones: 3 votos (EAJ-PNV)

**LEHENENGOA:** INKOMUNIKAZIORIK EZ! TORTURARIK EZ! UDAL TALDE MISTOAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA ONARTZEA,

**PRIMERO:** APROBAR LA PRESENTADA POR EL GRUPO MIXTO: ¡NO A LA INCOMUNICACIÓN! ¡NO A LA TORTURA!

Beraz, onartuta geratzen da proposamena,

Bigarren puntua:

**ATXILOTUAK IZAN EZKERO EUROAGINDUAREN BIDEZ ESPAINARATUAK IZATEKO ARRISKUAN DIREN 8 GAZTEEI BURUZKO, UDAL TALDE MISTOAK AURKEZTURIKO PROPOSAMENA,**

Bueno Mozio hau, ez da Andoni Etxanizena, aurrekoa ere ez, mozio hau Iparraldean dauden 8 gazteen izenean dakarkigu, Udal Batza hontara, eztabaidatu eta onartua izan dadin, irakurri egingo dut mozioa:

ATXILOTUAK IZAN EZKERO EUROAGINDUAREN BIDEZ ESPAINARATUAK IZATEKO ARRISKUAN DIREN 8 GAZTEAK, UDAL TALDE MISTOAK AURKEZTURIKOA,

PROPUETA PRESENTADA POR EL GRUPO MIXTO: 8 JOVENES CORREN EL RIESGO DE SER ENTREGADOS A ESPAÑA EN CASO DE FUERAN DETENIDOS EN BASE A UNA EUROORDEN

2010eko urriaren 22an Espainiako Auzitegi Nazionalak polizi operazio zabala agindu zuen, berriz ere, Segi gazte mugimenduaren aurka. Horren ondotik dozenaka gazteen etxeetan sartu ziren poliziak, horietatik 14 atxilo hartu eta inkomunikatu zituztela. Guztiek torturak salatu zituzten. Alta, operazio horretan 8 gazte ez zituzten horien etxean atzeman. Horiek dira, hain zuzen ere, "horien eskubideen alde

El 22 de octubre de 2010 la Audiencia Nacional Española ordenó una amplia operación policial, otra vez contra el movimiento juvenil Segi. Después la policía entró en los domicilios de decenas de jóvenes y detuvieron 14 de ellos. Todos denunciaron torturas. Sin embargo, en esa operación policial no encontraron a 8 jóvenes en sus casas y no los pudieron detener. Son precisamente esos jóvenes los que han comparecido en Iznura

borrokatzeko eta Espainia eta Frantziaren jokabidea salatzeko” Izpuruan publiko azaldu direnak.

“Polizien atzaparretarik ihes eginez tortura ez pairatzeko xantza ukan zutela” adierazi dute, mugaz bestaldera igaroz Ipar Euskal Herrian babesa bilatu zuten 8 gazte horiek. Astelehenean agerraldi publikoa egin dute Baxe Nafarroako Izpuria herrian, non aste osoan zehar itxialdia antolatua izan den “naziotasunatik haratago, euroagindua eskubideen bortxaketa dela” agerian uzteko nahian.

Horregatik, iragan abenduaz bere burua gordeta duen Aurore Martin auzia salatzeke osatu zen euroaginduaren aurkako kolektiboak babestu du gazte horien agerraldi publikoa. Haien ideia politikoak defendatzeagatik “atxilotuak eta torturatuak izateko arriskuan” direla azaldu du kolektiboak, berriz ere euroaginduaren neurria bertan behera uztea galdegin duela.

Hauek dira Izpuruan euskal jendartearen aintzinean azaldu diren gazteak: Xalbador Ramirez Cruz (Donostiarra, 20 urte), Aitziber Plazaola Oregi (Bergaratarra, 25 urte), Bergol Madernaz del Pozo (Gasteiztarra, 23 urte), Jazint Ramirez Cruz (Donostiarra hau ere, 22 urte),

que han comparecido en Izpura, “para luchar por sus derechos y denunciar la actitud de España y Francia”.

Los jóvenes que cruzando la frontera encontraron cobijo en Ipar Euskal Herria han declarado que tuvieron “la suerte de no sufrir torturas escapando de las garras de la policía”. El lunes comparecieron públicamente en la localidad bajonavarra de Izpura, donde se ha organizado un encierro que durará toda la semana, para poner de manifiesto que “más allá de las nacionalidades, la euroorden es una vulneración de derechos”.

Por esa razón el colectivo contra la euroorden que se formó para denunciar el caso Aurore Martin, que se encuentra oculta desde diciembre, ha apoyado esta comparecencia pública de los jóvenes. Según ha declarado este colectivo, corren “el riesgo de ser detenidos y torturados” por defender sus ideas políticas, y vuelve a reclamar que se suspenda esta medida.

Estos son los jóvenes que han comparecido en Izpura ante la sociedad vasca: Xalbador Ramirez Cruz (Donostia, 20 años), Aitziber Plazaola Oregi (Bergara, 25 años), Bergoi Madernaz del Pozo (Gasteiz, 23 años), Jazint Ramirez Cruz (Donostia, 22 años), Endika Perez Gomez (Larrabetzu, 23

Endika Perez Gomez Larrabetzukoa, 23 urte), Irati Tobar Eguzkitza (Portugaletekoa, 24 urte), Beñat Lizeaga Urkidi (Zumaiarra aste hontan 22 urte, usten dut, egin dituela ez? ostiralean) eta Aiala Zaldibar Alvarodo (Arabatarra, 24 urte). Gazte baten aurka –Aiala Zaldibar arabarra- euroaginduaren prozedura abian dela eta beste zazpiek atxilotuak izanez gero espainaratuak izateko aukera handiak dituzte.

Aste honetan antolatu duten itxialdiarekin gazte horien egoera salatu nahi dute, bere mementuan Aurore Martinen aurkako auzia salatu zuten bezala azaldu dute euroaginduaren aurkako kolektiboko ordezkariak. Gazte horien aurkako prozedurak zabalduz “ez dituztela delituak jazartzen baizik eta ideia politikoak krimijnalizatzen” argiki agertu du Askatasuna, Batasuna, AB, Segi, Solidaires, CDDHPB, Anai Artea, eta LAB sindikatuko kideak biltzen dituen kolektiboak. Era berean, naziotasuna ez dela auzi honen gako nagusia, “baizik eta militante politikoaren helburuen aurka jotzea” baizik.

Itxialdian zehar ekimen desberdinak antolatuko dituzte. Hala, eguerdiro eta arratsaldeko 19.00etan Izpuran bertan egingen dituzten elkarretaratzeetara hurbiltzeko gomita luzatu diete

años), Irati Tobar Eguzkitza (Portugalete, 24 años), Beñat Lizeaga Urkidi (Zumaia, 22 años) y Aiala Zaldibar Alvarodo (Araba, 24 años). El procedimiento de la euroorden está en marcha contra la arabarra Aiala Zaldibar y el resto corren el grave riesgo de ser entregados a España en el caso de que sean detenidos, según ha explicado Amaia Elixeri, portavoz de Segi.

Con el encierro que han organizado esta semana los representantes del colectivo contra la euroorden quieren denunciar la situación que viven estos jóvenes, tal como en su momento denunciaron el caso de Aurore Martin. Iniciando procedimientos contra estos jóvenes “no se persiguen delitos, sino que se criminalizan ideas políticas” ha señalado claramente el colectivo que aglutina a miembros de Askatasuna, Batasuna, AB, NPA, Segi, Solidaires, CDDHPB, Anai Artea, y del sindicato LAB. Así mismo, han subrayado que este caso no es cuestión de nacionalidad, “sino ir contra los objetivos de los militantes políticos”.

Durante el encierro organizarán diversas iniciativas. Entre otras cosas invitan a todos los ciudadanos y organismos a participar en las concentraciones que se harán en Izpura todos los

herritar eta eragile orori. Bestalde, otsailaren 26an, euroaginduaren mehatxupean direnak jendearen sostengua adieraztelo kantaldia antolatua da Kanbon. Azkenik, heldu den martxoaren 5ean giza katea deitu da Baionan.

#### Euroagindua

Aurore Martinen aurkako auziak sona handia eman dio euroaginduaren aurkako herri mugimenduari, Ipar Euskal Herrian ez ezik hamaika ekimen egin dituzte Frantzian ere.

Aldiz ez da lehen aldia Frantziako justiziak euskal herritar baten aurka euroagindua onartzen duela. Azken urteetan, Ipar Euskal Herrira bizitzera etorritako iheslarien kontrako euroaginduak biderkatu dira, prozedura arrunta bilakatzeraino. 2010. urtean 13 izan dira frantziar justiziak euskal herritarren aurka egindako prozedurak.

Euroaginduaren aurkako kolektiboak salatu duenez, ‘Frantziak prozedura honekin Espainiako Auzitegi Nazionalaren egin moldea onesten du: ilegalizazioak, mehatxuak, jazarpenak, atxiloketak, inkomunikazioak eta tortura’.

Bestalde, gogorarazten dugu “auzitegi bereziek eskubideak urratzen dituztela eta egoera hori behin baino gehiagotan salatu dutela nazioarteko hainbat erakundek, besteak beste Amnesty Internacional, NBE eta Human

días a las 12:00 y las 19:00. Por otra parte, se ha organizado un recital de canto en Kanbo el 26 de febrero para expresar su apoyo a los amenazados con la euroorden. Para finalizar, se ha convocado una cadena humana para el próximo 5 de marzo en Baiona.

#### Euroorden

La causa contra Aurore Martin ha puesto de actualidad el movimiento contra la euroorden, el cual ha realizado multitud de iniciativas no sólo en Ipar Euskal herria sino también en Francia.

No es la primera vez que la justicia francesa aprueba una euroorden contra un ciudadano vasco. Estos últimos años, se han multiplicado la euroordenes contra los huidos que han llegado a Ipar Euskal Herria. En 2010 la justicia francesa ha iniciado 13 procedimientos contra ciudadanos vascos.

Según ha denunciado el colectivo contra la euroorden, “con este procedimiento Francia da su visto bueno al modo de actuar de la Audiencia Nacional Española: ilegalizaciones, amenazas, persecuciones, detenciones, incomunicación y tortura”.

Por otra aparte, queremos recordar que “las audiencias especiales vulneran los derechos y esa situación ha sido denunciada por muchos organismos internacionales, entre otros Amnesty Internacional ONI y Human

Rights Watchs, besteak beste.

Internacional, ONU y Human Rights Watchs.

Honegatik guztiagatik honakoa eskatzen diogu udalbatzari:

Por todo ello, solicitamos a este pleno:

1- Gazte hauek zein beren senitarteko nahiz agunak babestea; eta egoera honek sor ditzaken kostu ekonomikoak udalaren gain hartzea. (Zumaiaren kasuan, Beñat)

1- Que ofrezca apoyo a estos jóvenes y a sus familiares y amigos, y que el Ayuntamiento asuma los costes económicos que suponga esta situación (Zumaia, Beñat).

2- Proiektu politiko guztiak bermatuta egongo diren eskenatoki demokratiko baterantz urratsak emateko konpromisoa hartzea.

2- Que asuma el compromiso de ir dando pasos en pos de un escenario democrático en el que estén garantizados todos los proyectos políticos.

3- Balizko euroagindu baten aurrean, berau arbuia eta salatzea.

3- Que manifieste su rechazo a una posible euroorden y denunciarla.

4- Balizko atxiloketan jasan ditzaketen torturak arbuia eta salatzea.

4- Que manifieste su rechazo a las torturas que pudieran sufrir en caso de se que fueran detenidos y que las denuncie.

Eta azkenik, Afera honen harira egingo diren mobilizazioetara herritarrei deia luzatzea.

Y por último que llame a los zumaiarras a participar en las movilizaciones que se harán al hilo de este caso.

Beraz, hau da onartua izan dadin ekartzen dugun mozioa, Gazte Mugimenduaren izenean,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek zerbait esateko, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, beno... ados gaude, hau... atxiloketa hauek eman ziren ba... ez ziren bakarrak izan, momentu konkretu batean, bai?, non Rubalcaba Ministroak,



Barne Sailak, adierazi beharra izan zuen, ez momentu hortan bakarrik, noski, beste batzutan ere bai, bere ETA-ren kontrako borroka inoiz etengabeko hori ez zela eten, eta alderdi hortatik eta baita ilegalizazioen kontra gaudenez, hasieratik, ba... atxilotetak eman dira ba... joku politiko baten aginduz eta ideia politikoengatik eta ez inolako delitu frogatuagatik.

Hori horrela da, bestaldetik euroordenarena eta Aurore Martinen kasua ba... en fin, aipagarria da eta ilegalizatuak izan diren elkarte edo alderdien kide izateagatik atxilotuak eta Espainaratuak izatea ez da zilegi! Eta Frantziak hori onartzea, ba... oraindik ere ilogikaren logikari beste buelta bat ematen dion jarrera,

Beraz, aurreko mozioarekin egin dudan saiakera berdina egingo dut, nahiz eta jaso dugun erantzuna ikusita, akaso, somatzen dugun hontan ere zein izango den erantzuna, alegia, mozioko puntuei begiraturaz, aurrengoan aipatzen da:

“Gazte hauek zein beren senitarteko nahiz agunak babestea; eta egoera honek sor ditzaken kostu ekonomikoak udalaren gain hartzea. (Zumaiako kasuan, Beñat Lizeaga Urkidi eragindako edo famili eta lagunei eragindako kostuak bereganatzea”

Politikoki aproposa iruditzen zaizute, noski, bestela ez zenuten ekarriko hona proposamena, ez zenukete luzatuko mozioa, baina guk koherentzi bat mantendu behar dugu, beti, mantendu izan duguna eta beti eman ditugun arrazoi berdinekin, lehen ere saiatu naizena esplikatzen, Herritar asko daude Zumaiari, eta kasuistika haundia eta kasuistika horren barruan herritar batzuk, (asko espero dut) ondo bizi dira, ondo dihoazkie gauzak, baina beste batzuk, fijo, eta akaso beste askok, motibo diferenteagatik, arazo desberdinak dituztelako, laguntza beharra daukate. Eta ni benetan ez nintzatekeela ausartuko behar hortan ranking bat lehenesten. Kasu honetan, lehen esan dudan bezala, beharra daukanak, laguntza beharra daukanak, dauka udalak eskaintzen dituen bide normalizatuak, denentzat berdinean diren horiek, berdinak diren horiek, laguntza horiek eskatzeko.

Eta badakit salbuespenak planteatu daitezkeela, bai! Baina nik usten dut kontu haundia ibili behar dela hortan eta kasu honetan ba... arazo politikoa delako egin behar dugu salbuespen hori? Beste gainontzeko zumaiarrek, seguru, dauzkaten beste hainbat beharrekin alderatuz? Alegia, eta simple esateko, kostu ekonomikoen aipamena kenduko balitz eta beharrezkoa balu, edozeinek, familiak edo berak, normalak edo ohikoak diren bideak erabiliaz eskatu dietzatela, baina aipamen horiek kendu ezkerro, guk aldeko botua emango genioke, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste bateren batek, zerbait esateko?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Bueno, como con la otra logicamente estamos completamente en desacuerdo y en contra de ella, no cabe la menor duda que lo que ha apuntado M.Eugenia era en la única parte en la cual iba a tratar, yo no creo que ni este Ayuntamiento, ni ninguno, pueda obligar a alguien sin estar de acuerdo a que por el mero hecho de que un grupo político en el Ayuntamiento lo pida, el resto de vecinos tenga que soportar un coste que para nada tienen que ver, digamos, con su desarrollo y su vida normal, por lo tanto, creo que está sobrepasando con mucho los límites que le corresponde al Ayuntamiento y que... veremos a ver si luego dá lugar a lo que dé en su momento, si se aprueba tal y como está, pero de todas maneras mi voto va a ser negativo, porque entiendo que éso no se puede ejecutar para nada, no tiene competencia el Ayuntamiento para éso y desde luego, no puede obligar a nadie a pasar por el aro de aquello que un grupo determinado pueda entender qué es lo que hay que hacer, este Ayuntamiento es lo suficientemente plural y como todos los demás y no puede atender sólo a un requerimiento ó a una opción política ó a una opinión política, sino que se debe y por éso representa al pueblo y tiene que tener en cuenta todas las sensibilidades que pueda haber dentro del mismo, por lo tanto, creo que está, digamos, imponiendo algo que no debe y que no tiene capacidad para ello, por lo tanto, ya veremos

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bueno, ni testu honekin ados nago, baina egia da, puntu hori pixkat korapilotxoa dela, alde nago dirulaguntzak emateko eta nire bozka aldekoa izango da, baina nik usten dut hemen jarri behar zuela, dirulaguntza emango zaiola edo lagunduko zaiola, baina ez Udalak emango diola babes guztia, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde; Pili,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Ba... berdina, ez nago ados aurrenengo puntu horrekin, ez dut uste Udalak asumitu behar duenik ba... sortzen duen kostu ekonomiko hori, nik sentitzen dut pilo bat familiengatik, baina izugarri, ama hemen dago, ez... izugarri! izugarri! Bueno... nahi duzuna esango duzute, baina usten dut, udalak ezin duela, badago partida bat ba... espetxean daudenak, ba... hor sortzen diren gastuak ordaintzeko baina hau ez dakit zergatik izan behar duen bereziki..., ez dakit, ba... ya está... baina eske.... ba... o sea.... nire

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno... Pili, eskerrik asko, Nik nire aldetik, esan nire aldeko bozka emango diotela, eta bai nahiko nituzke esan diren gauza batzuei erantzun, ez?

Zergatik, egiten da salbuespena kasu hontan? Ba... bai

Salbuespena egin behar delako. Askotan ez zaidalako... ez dudalako uste, jabetzen garenik ze... momentu politikotan aurkitzen garen eta horrenbeste urte igaro dira, zoritxarrez, denontzat, zoritxarrez, ba... askotan egon diren zauriak eta egon diren ikusiezinak e.a. eraman gaituztela ziur aski ez ondo neurtzera ze... momentu politikotan aurkitzen garen,

Zergatik, salbuespena bai? Ba... oinarrizko eskubide batzuk eta hortan gure alderdia, egon diren oinarrizko eskubide guztien aurrean, urraketan aurrean bat egin dugulako, etortzen den tokitik datorrela ere, eta kasu hontan baita ere oinarrizko eskubide baten urraketaren aurrean gaudenez, gure elkartasuna adieraztea ze... hain zuzen ere gogoratu behar dugu Beñat Lizeaga zerbaitengatik baldin badago dagoen tokian ez dela berak inolako eskubiderik urratu duelako, baizik eta Espainiako Gobernuak esan diolako parte hartzen duela erakunde politiko batean.

Hori da urratzen dena! Erakunde politiko batean parte hartzeagatik, dago zoritxarrez, urrutiratuta.

Eta hori ziur aski Europako Herrialde garatu eta demokratikoenetan ez da gertatzen, baina hemen bai. Hori gertatzen da. Eta antza, normala ikusten da ba... nor beste guztiok bestaldera begiratzea, eta nik, badakit, lehen hasieran esan dudan bezala, urte asko alferrik ez direla igaro, egonezin ikusi asko dagoela baina iruditzen zaidala, horrek itsutu egiten gaituela, non gauden gaur egun.

Eta zoritxarrez, mahai gainean daukaguna hori bakarrik da. Beñatek eta Beñatekin beste hainbatek parte hartu nahi izan dute erakunde batean, erakunde politiko batean, beraien ideiak defendatzeagatik eta zoritxarrez aurkitzen da, aurkitzen den tokian,

Beraz, egoera berezi baten aurrean, erantzuna ere berezia behar du izan, eta guk zentzu hortan, berriz diogu salbuespena, M. Eugeniak zioen salbuespena, zergatik? Ba... salbuespena esan dudan arrazoi horrengatik, Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bueno... Iñakik ondo esan duen bezala, salbuespen egoera baten aurrean, salbuespeneko neurriak hartu beharko dira eta zoritxarrez Euskal Herriak urte luzeegi daramazki salbuespeneko egoera batean eta hau ba... egoera horri erreparatzen dion erabaki bat izango litzateke, hau ez da arazo bat gehiago, hau ez da mailakatu beharreko arazo bat, hau ez da, ez dakit, ba... etxebizitzaren arazoa edo krisiak eragindako egoera ekonomiko larri baten

ondoren... Ez, ez, hau ez da fribolizatu behar eta ez da gutxietsi behar, ez da arazo bat gehiago, hau salbuespen egoera batetik datorren ondorio bat da.

Kontua da, zergatik eta nola joan ziren Beñaten etxera, Beñat atxilotzera, eta zenbat joan ziren Beñat atxilotzera,

Kontua da, soka hau luzeegia dela eta soka hau guztion artean ordaintzen dugu eh? Guztion inpuestoak ordaintzen dute hirurehun Guardia Zibil edo Polizia Nazional Euskal Herriko kaleetan goizeko lauretan gure etxebizitzetara sartu, ateak bota eta hemengo gazteak behin eta berriz eraman eta ateratzen dituzten autoinkulpazioak jantzi, jartzen dituzte ondoren euren autoak eta hortik izen gehiago ateratzen dituzte eta soka luze hori, nork finantziatzen du ba?

Herritarren ordezkariak, finantziatzen dute?

Gure inpuestoak, finantziatzen dute? Hori bai, hori bai, finantziatzen dugu eta ez gara akordatzen horrekin, baina orain egoera hori pairatzen ari den herritar bati gure babes eta gure laguntza eskaintzeko orduan, orduan... ostras... ba... diru publikoak erabiltzerako orduan ba... bueno ba... kontu haundiz ibili behar gara, baina zertarako erabiltzen dira ba... diru publikoak errepresioaren soka gero eta estuago mantentzeko ez baldin bada?

Beñaten etxera joan ziren norbaitek ziega baten Beñaten izena eman zuelako eta zer egin zioten izen hori emateko? Torturatu egin zuten eta Beñat bazekien zer zeukan zain eta ez zen geldirik geratu horren zain, erabaki bat hartu zuen eta erabaki hori denok badakigu zein den, orain beste erabaki bat hartu dute zazpi gazte hauek eta, zortzi gazte hauek, eta hartu duten erabakia da ihesi ez direla biziko, klandestinitatean ez direla biziko, ez dutela ezer egin hortara kondenatuak izateko, ez dutela merezi ez beroiek eta ez bere ingurukoek horrela bizi behar izatea eta aste hontan ba... atera dira berriz ere, berriz ere beroien berri badaukagu eta zorionez beroiekin egoteko parada eduki dugu eta beroiek orain artean egin duten lan berdina egiten jarraitu nahi dute, Iparraldean, Frantzian, badirudi ez dela delitu horrelako lanketa politikoak egitea baina hala ere Espainiako Gobernuarekin elkarlanean jarraitzen dute eta Euskal Herritarrak Espainaratzen jarraitzen dituzte, baina beroiek hemen egiten zuten ekarpenak Iparraldean egiten jarraitu nahi dute, Euskalgintzan, Euskararen alde, Herrigintzan, Herriaren alde, Nazio Eraikuntzan, beroien ekarpena egiten jarraituko dute, zilegia delako eta beharrezkoa delako eta jarri dieten kondena hori aurpegira begiratu eta ez dute onartzen, ez dute onartzen klandestinitatea, ez dute onartzen ezkutuan ibili behar izatea ez dutelako ezer egin.

Egun hauetan babes jaso dute eta jende asko egon da, beroiekin alderdi desberdinak, eragile desberdinak, sindikatu desberdinak, eta jakin badakigu Alderdi Sozialistako kideak ere, Alderdi Sozialistako zinegotziak ere, Frantziako Alderdi Sozialistakoak, noski, egon direla gazte hauekin eta

babesa adierazi diela eta euroaginduaren aurka agertu direla eta beroiek hori da irudikatu nahi dutena, azken finean, beroiek ez dutela ezerren ihesi ibili behar, baizik eta beroien atzetik dabiltzanak direla zer ezkutatu edo zer kritikagarria den zerbait egiten ari direnak, beroiek ez dute deliturik egin, delitua egiten ari direnak eta eskubideak urratzen ari direnak dira gure inpestoekin ordaindutako epaileak eta gure inpestoekin ordaindutako Poliziak.

Grande Marlaska fabore bat egitera etorri zitzaigun Euskal Herrira, hori ere esan zuen bere autoan, Ezker Abertzaleari laguntzera joan naiz ni, zeren, Gernikako Akordioa sinatu ez zutenak atxilotu nahi genituen ba... beroien bidea egiten laguntzeko, ez da egia hori, baina egiak ez da lekurik Audientzia Nazionalean eta, eta... Guardia Zibilaren kalabozoetan impugnitaeak bai ordean, impugnitaeak sekulako kotoa eta sekulako lekua dauka gune hauetan zoritxarrez, eta impugnitae hori erabiliz inkomunikatu, torturatu eta eraikitzen dituzte beroien autoak, autoinkulpazioen bitartez eta guzti hori bai diru publikoarekin, eta orain guzti hori pairatzen ari diren gazteei diruz laguntzeko, gure diruak nola erabili behar ditugun puffffffff... -nos produce un malestar- niri behintzat iruditzen zait ez dela, ez dela zilegi eta ez dela proportzionala eta salbuespen egoera baten... salbuespeneko erabakiak hartzen jakin behar dugula eta hartu behar dugula, gazte hauek bizitza publikoa eramango dute orain Iparraldean eta normalkuntza politikoaren alde bere ekarpena egingo dute. Beñatek orain arte bezala Zumaian egin duen bezala, ba... han ere bere militantziarekin aurrera, aurrera joko du eta bueno... ba... zoritxarrez Hegoaldean gaztea eta abertzalea izatea delitua da, Iparraldean printzipioz ez, baina hala ere jakin badakite ba,... aukera asko dagoela Espainiaren esku geratzea eta bueno... ba... gu ez baldin bagara ba... Beñaten lekuan akaso izango da hamasei urte zaharragoak garelako, baina hemen azkenean ba... gazte eta abertzale izatea, zoritxarrez momentuz delitua da eta egoera horren aurrean iruditzen zaigu erabakiak hartu behar ditugula, babesa adierazi behar dugula eta sufritzen ari den jendearen aldamenean egoten jakin behar dugula, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Azkenengo txanda, PNV

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, eh! luze azaldu dituzun azalpen guzti horiek entzun eta gero burura etorri zaidan ideia aurrenengoa izanda, nonbait ez duzue ulertu esan dudala mozioarekin ados gaudela, bere eduki guztian, bere baieztapen politiko guztietan, bere balorazioetan. Eta ez gaudela ados aurrenengo puntu horretan markatzen den kostu ekonomiko horiek udalaren gain

erortzearekin, soilik. Alkate Jaunak esan du akaso momentu politikoaren garrantziaz ez garela behar bezala jabetzen, usten dut, esan duela ez dugula “ondo neurtzen”..., esango nioke, baietz, primeran neurtzen dugula, primeran neurtzen dugula, eta bai batak eta bai besteak aipatu dituzue salbuespeneko egoera batean... baten aurrean gaudela ez direla gauzak fribolizatu behar, Beñatek ez duela inolako eskubiderik urratu, egia da, eta gauza hauek ez direla beste inon gertatzen, Europa guztian, hemen bakarrik eta holakoak,

Eta ez nuke nahi nik debatea muturretara eraman, ze... ez nuke nahi, koherentzia aipatu dut eta gure ustetan gauzak behar dute logika bat, logika bat, berdintasunaren aldeko logika bat edo...; baina esan dituzuen gauzak entzunda egun hauetan baita pil-pilean dabilen beste diskurtso bat etorri zait burura, argudio oso antzekoak erabiltzen dituen: “salbuespen egoerak, hemen gertatu direnak inon ez dira gertatu; hainbat herritarrek inolako eskubide, oi barkatu, lege urraketarik edo inolako eskubiderik urratu gabe, zuk esan duzun bezala, alde egin behar izan zuten, beldurrez, mehatxatuta eta guzti horiek buelta daitezen -hirurogei mila lagun Erkidegora eta guk gure babes ekonomikoa, etxebizitza, lana eskaini beharko diogu”... eta klaro ez gara ari gauza berdinetaz, ez gara ari neurri berdinetaz, baina... egin ezazue azterketa bat eta erabiltzen dituzuen arrazoiak... eta arrazoi guztia daukate? bere arrazoi neurria? Antzekoak dira eh? ... gure abstentzioa, eskerrik asko.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): PSOE,  
Ezerrez,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sí, vamos a ver, yo solamente dos cosas, no quiero entrar en más debate por contestaros en parte a los dos, puesto que cada uno de ellos ha comentado este tema, por empezar contigo mismo, Iñaki, pues... partidos políticos aquí hay varios, a mi lado, de frente, a la izquierda, a todos los lados y no hay ningún tipo de problema, luego no es por estar en un partido político, sino por las actividades que pueda llevar a cabo ese partido político que es completamente diferente, que no lo quereis reconocer, no lo reconozcais y éso enlaza con que la nueva situación, para empezar con la nueva situación hay que ser capaz de saber donde se quiere y hasta donde se quiere llegar y hasta donde se está dispuesto a llegar, la nueva situación es ésa que lo que ocurre aquí no ocurre en ningún lugar? Totalmente de acuerdo que lo que ocurre aquí no ocurre en ningún lado, si éso tampoco se quiere tener en cuenta pues así nos irá,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aralar, Ezerrez;  
Pili,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Hombre,  
publikoari errespetu pixkat eskatuko nioke, eh?  
Bozkutzen ari gara ia?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Zer edo zer nahi duzun esan?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Nik bai,  
Ez, ez,  
Bigarren turnoan gaude, nik bai; M. Eugeniak esan du argudioak bai!  
Argudioak koherentzia mantendu behar da, efektibamente, eta esan dut,  
guk beti mantendu izan dugu, hortan ez daukagu inongo arazorik, esaten...  
urraketa guztien aurrean gure elkartasuna adierazten dugula, eta zuk esan  
dituzun beste horietan ere bai, gertatzen dena da ez gauza guztiak direla  
berdin eh? eta zuek ere jakitun zarete horrena eh? ez dira eskubide guztiak  
berdinak eta eskubide urraketa guztiak berdinak? e.a. e.a. eta zuk diozuna,  
zuk diozu beste Parlamentuan daukazuen Legebiltzarrean daukazuen beste  
eztabaida hori ba... Alderdi Popularrak eta nahi duten beste eztabaida antzu  
hori, antzua, bueno... ez dakit antzua den edo ez den, baina gauzak  
nahasteko edo begiradak beste nonbaiten jartzeko daukan irrika horrekin,  
nik uste dut, honek zer ikusi gutxi daukala, eh? eta gaudela gauden tokian  
eta salbuespenak salbuespen direla eta bai... Emiliano salbuespenean bizi  
gara gai askorengatik, ados nago, baina honengatik ere bai eta Andonik ere  
aitatu du Alderdi Sozialista bera ere, Frantzian gutxienez bixitatu dituela  
gazte hauek, beraz, ba... koherentziaren argumentuari jarraiki ba... izan  
gaitezen denok horren konsziente, ez?  
Bukatzeko, Andoni eta ia bozkatzera pasako gara,  
Ez duzu ezer nahi?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... bozkatzera pasatzen gara, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Abstentzioa; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, ARALAR?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontrakoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EAk ere aldeko botua,

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu ( 3  
TALDE MISTOA; 1 ARALAR  
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 2 botu (1  
PSE-PSOE; 1 INDE-  
PENDIENTEA)

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 votos (3  
TALDE MIXTO; 1 ARALAR  
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 2 voto ( 1  
PSE-PSOE; 1 INDE-  
PENDIENTE)



Abstentzioak: 3 botu (EAJ-  
PNV)

Abstenciones: 3 votos (EAJ-  
PNV)

**LEHENENGOA:**  
ATXILOTUAK IZAN EZKERO  
EUROAGINDUAREN BIDEZ  
ESPAINARATUAK IZATEKO  
ARRISKUAN DIREN 8  
GAZTEAK, UDAL TALDE  
MISTOAK AURKEZTURIKO  
PROPOSAMENA ONARTZEA,

**PRIMERO:** APROBAR  
LA PROPUESTA  
PRESENTADA POR EL  
GRUPO MIXTO: 8 JOVENES  
EN RIESGO DE SER  
ENTREGADOS A ESPAÑA EN  
BASE A LA EUROORDEN EN  
CASO DE SER DETENIDOS

Beraz, onartua geratzen da mozioa,

**HIRUGARREN PUNTUA:**

Bigarren puntuko hirugarren proposamena:

**UDAL WEB ORRIARI BURUZKO ESKAERA, EAJ-PNV,  
ALDERDI SOZIALISTEKO UDAL TALDEKIDEAK ETA PILI  
ETXABE ZINEGOTZIAK AURKEZTURIKOA**

Oker ez baldin banago, Idazkariak horrela adierazi duelako edo proposamena egin duzutenak eskatu duzue Udal Pleno hontan hori ez eztabaidatzea, baizik eta Ez Ohiko Pleno batean eta puntu bakar bezala eztabaidatzea, hori horrela baldin bada, bai... M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, egia da eskatu dugula, ez! akordarazi egin duguna da, legearen arabera ezin daitekeela ohizko den pleno batean eta beste puntuekin batera tratatu, baldin eta ez bazaigu aurkeztu dugunari baimena espreski eskatzen eta guk baimen hori ematen.

Hau da, ez da gauza berdin berdina eh?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ba... nahi baldin baduzue, baimena eskatuko dugu orain, edo bestela Ez Ohiko Pleno bat egiten dugu!

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ez, orain ez duzue baimena eskatuko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... guk nola Ez Ohiko Plenoa pentsatuta geneukan Idazkariari entzun ondoren, Ez Ohiko Pleno batean tratatuko dugu legeak zuei bermatzen dizuen bezala,

Eta bukatzeko ESKARI-GALDERAK.-

Bateren batek, zerbait esateko?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Frontoia, Odieta Frontoiaren obraren bilakaera nola dihoan edo pixkat azalduko bazenigukete erabakia, ezker paretarekin azkenean zer egin behar den, estalkia e.a. bueno...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... batzordean aitatuta dago, eh? eta nahi baldin baduzue batzordean aitatuko dugu baina nik dakidala laugarrenetik zazpiraino dihoa, bueno... baina batzordean aitatuko dugu,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bale!  
Eta beste gauza bat, aspaldi edo... aspaldi geratu ginena batzordean tratatzeko, batzorde batzuk pasa ziren tratatu gabe, halako batean akordarazi nuen hala agindu zela Pleno hontan eta gaur arte nik dakidala, (bueno... klaro batzordeak goizez jarri dituzun hauetan ez dakit, oraintxe, zuek akaso tratatu eta gu ez garen egon, baina ez dut uste), Autobusaren erabilpenaren balorazioari buruzko txostena, noizko izango dugu? Eta ez esan mesedez batzordean izango dela, zeren... badaukazute idatziz, e-mailez bidaltzea ere, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... idatziz edo e-mailez, bidaliko dugu daukagunean, zeren... orain ez daukagu

Emiliano,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Ahondando en el tema de Odieta, yo no recuerdo y he estado mirando por todos los lados, en ningún sitio, en ninguna comisión que se haya aprobado lo que se está haciendo en Odieta, para nada, se rechazó desde el primer momento y se dijo que se iba a mantener la pared con esa inclinación primero hasta un punto y luego hasta el otro, pero no hacer el frontón más alto que el que había incluso anteriormente, éso ni está aprobado ni tiene presupuesto, ni se ha debatido por lo menos sobre mi conocimiento en ninguna comisión que se haya aprobado; si es así pues me decís dónde y lo comprobaré.

Y en segundo lugar repito lo que en su momento ha hablado a nivel informal con el Secretario aquí presente y con el responsable de Urbanismo está incumpliendo a todas luces el código Civil de Urbanismo, puesto que se está colocando un muro a menos de tres metros de las ventanas y éso es fuera de toda la legalidad, yo adelanto que si éso es así y los informes van en ese sentido no solamente voy a mandar parar la obra sino a derribar lo que se ha construído dentro de esa ilegalidad, y cada uno que cargue con lo que corresponda, ahora aparte de éso, aparte de éso, ya que se habla de... digamos de mala fé, no voy a entrar en ello pero bueno... lo voy a dejar en ese sentido pero hay una cosa que es lo suficientemente clara, si nosotros hemos estado viendo la posibilidad de ver cómo se encajaba las ventas de las viviendas para poder cubrir si era posible el cien por cien del coste de Odieta, y si no era posible asumir un determinado déficit se nos ha achacado en el tema del presupuesto que se había conseguido de alguna manera la liquidez de Zumaia Lantzen; yo entiendo que cuando se actúa de esta manera y no está ni siquiera recogido el coste... yo lo desconozco al menos, ya digo que si me lo explicais,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Emiliano, perdona, es que creo que estas cuestiones no son para debatirlas en un pleno, el lunes tenemos una comisión de Urbanismo

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Estoy haciendo una exposición en el tema de varios y no en el tema de Comisión, perdona, pero estoy en el uso de la palabra y en mi derecho al uso de la palabra... cuando lo tengas tú me contestas.... y cuando lo tengas tú me conteste, por favor...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): No, pero... estas haciendo una exposición nuevamente, nuevamente..... y vas al desconocimiento, es que no es cuestión del pleno...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Andoni laga diozu, Venga Emiliano, venga...

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Y cuando lo tengas tú me contestes, por favor.... ahora respeta que estoy en el uso de mi palabra, yo no te he cortado a tí en ningún momento por lo tanto procura hacer lo mismo, el respeto de uno es lo mismo que el respeto de los demás eh?

Vuelvo a reiterar que no se ha valorado en ningún lado, ni tiene presupuesto y lo único que se va a hacer y en declaraciones de la propia Zumaia Lantzen a cargo del déficit que ya tiene, entonces, difícilmente se nos puede achacar a los demás que cuando está la liquidez conseguida, ahora resulta que se aumenta el déficit porque lógicamente Zumaia Lantzen, no tiene presupuesto para hacer éso; lo que esas actuaciones veremos a ver por dónde terminan pero la dificultad de vender las casas si ya era nula ó muy difícil, pues no te digo nada ahora cuando le pongas un frontón encima como está puesto y a esa distancia de las viviendas y luego habrá que ir asumiendo cada una de las quejas de los que vayan a vivir ahí por la actividad del frontón porque no es la misma situación la que hay ahora que la que había antes con el frontón, todo eso parece ser que no importa y que lo que sí importa es que si determinada sección, persona ó lo que sea decide hacer éso, hay que hacerlo por encima de todo, porque viene por esa vía, si no viniera por esa vía no! Cada uno que cargue con sus consecuencias,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Muy bien, Emiliano, De todas formas te recuerdo que éstos son... hauek direla ESKARI-GALDERAK eh? tarteá, eta horren berri, horren informazioa jasoko dugula batzordeetan.

Hala eta guztiz ere, usten dut Aitorrek ere buruarekin egin duela baina batzordean tratatuta dagoen gai bat da, eh?

Aitor, zer edo zer nahi zenuen esan?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bai, Frontoiaren gaia, urte askotako kontua da Odieta, nola izan behar zuen, hainbeste aldiz tratatu da komisiotan, adostu zen ez dakit zenbat urte, gutxi gora behera orain egingo dena, PNV-k bere garaian proposatzen zuen gauza bat onartzekotan zenean beste komisiio batean...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Hori da,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Beste komisiio batean onartu zen zazpigarren kuadro arte, eta besterik ez dut gogoratzen, hori da, es ke hori da gertatu dena, besterik gabe,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Eta akklaratu dugu hobeto batzordean,

Besterik ez badaukazue, eskerrik asko etortzeagatik,

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortziak eta hogeibederatzi direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veinte horas veintinueve minutos y yo el Secretario doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,

